

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 -
20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus

JOLAS PARKEEN KONPONKETA ETA MANTENIMENDU LANEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2017ko uztailaren 10ean Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Apirileko udalbatzarrean honako kontrol mozio hau onartu genuen:

- *Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Abegi Etxearen alboan dagoen parkea konpon dezala.*
- *Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari parkearen konponketa lehenbailehen egin dezala, umeez udan erabiltzeko aukera izan dezaten.*

Ekainean zonaldea ikustera joan gara eta parkea lehen bezala dagoela ikusi dugu. Hori dela eta, uztailako batzordeetan delegatua interpelatu dugu gai honen inguruan. Delegatuak adierazi digu parkea konponduko dutela, baina epea atzeratu dela beste lehentasun batzuk daudelako aurretik; horien artean, Alderdi Ederreko parkean hobekuntzak egitea.

Delegatuari aurreikusitako aurrekontuaren inguruan galdetu diogunean, ez digu informazio argirik eman. Gainera, aipatu du Udal Gobernuak ez duela erabaki zer egingo duten jolas parkeak konpontzeko aurreikusita dagoen 200.000 euroko partidarekin.

Kontuan izanda urte erdian gaudela, ez zaigu egokia iruditzen jolas parkeak konpontzeko beharren lehentasun zerranda bat ez izatea eta 200.000 euroak nora bideratuko diren erabakita ez izatea.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udaltzaren eskatzen dio Udal Gobernuari auzoz-auzoz azter dezala zein den jolas parkeen egoera, konpokatutako behar dituzten guneak atzemateko eta, horren arabera, lehentasunak ezartzeko.



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 -
20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari zehaztu dezala zertan inbertituko dituen aurrekontuetan jolas parkeak konpontzeko jasota dauden 200.000 euroak.

Donostian, 2017ko uztailaren 14an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia